

Erref.: FMR / Legelari aholkularia

GUFeko GOBERNU BATZORDEKO PRESIDENTE JAUNAREN EBAZPENA, 2020KO URRIAREN 9KOA, GERENTE AKZIDENTALA IZENDATZEA XEDATZEN DUENA.

Gobernu Batzordeko Presidente jauna:

**AURREKARIA.**- Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakunde honetako Gerente-lanpostua hutsik dagoenez, egungo titularrak berak hala eskatuta kargua utzi ondoren, Euskal Administrazio Publikoan beste lanpostu bat betetzera igarotzeagatik, aldi baterako izendatzea erabaki behar da -akzidentala baita-, eta, bitartean, hala badagokio, beste izendapen bat eman daiteke, GUFeren Estatutuetan aurreikusitakoaren arabera.

Era berean, bidezkoa da Gobernu Batzordearen osaera integratzea, Idazkari-kargua izendatuz, zeina berriz ere izango baita izaera akzidental berarekin eta lehen adierazitako oinarriarekin. Izan ere, kide anitzeko organoaren idazkaritza-eginkizun hori gerentziak hartzen du bere gain Institutuaren eremuan.

**OINARRI JURIDIKOA.**- GUFeren Estatutuak aldatzeari buruzko maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauaren 10,3 artikuluan xedatutakoaren arabera, Presidenteak izendatutako Arloko Zuzendaritzetako bati dagokio gerentzia ordezkatzea, halakorik ez badago; eta, gertatzen denez, Pertsonak Zuzentzeko Departamentuko Buruak zuzendaritza horretan parte hartzen du -lanpostu parekatu gisa-, izena gorabehera.

Era berean, lege-testu beraren 4,2 artikulua ezartzen duenez, Gobernu Batzordeko Idazkari-kargua Presidenteak izendatuko du batzorde horretako kideen artean; eta gainera, Batzorde horretako kide da Gerente-kargua, titularra edo haren ordezkoa izanik.

Aurreko guztia dela eta, hau sinatzen duenak, azaldutako arrazoiak ikusita, honako ebazpena onar dezazun proposatzen dizu:

## EBAZPENA

**Lehenengoa.**- GUFeko Gerente-lanpostua hutsik dagoela eta, bitartean, Eneko Gutiérrez Coterón Pertsonak Zuzentzeko Buru jauna izendatu da akzidentalki eta lanpostu horri dagozkion eginkizunez arduratzeko.

**Bigarrena.**- Izaera horrekin emandako egintzetan, berariaz ohartaraziko da horiek akzidentalak direla, dagokion legenda erantsiz.

**Hirugarrena.**- Pertsonak Zuzentzeko Departamentuko Burua, Eneko Gutiérrez Coterón jauna, Gobernu Batzordeko Idazkari akzidental izendatzea, Ebazpen honen aurreko ataletan adierazitako irismen eta oinarriarekin



Laugarrena.- Ebazpen hau helaraztea, batetik, Pertsonak Zuzentzeko, Zerbitzu Orokorretako eta Antolaketa eta Hobekuntzarako departamentu-buruei; bestetik, Zerbitzu Soziosanitarioen eta Adinekoentzako Zerbitzuetako, Desgaitasuna duten Pertsonentzako eta Gizarteratzeko Zerbitzuetako eta Ume eta Nerabeentzako Zerbitzuetako dibisio-buruei; eta azkenik, Ogasun eta Finantza Departamentuko Fiskalizazio Zerbitzuari.

Bosgarrena.- Ebazpen honen berri ematea Enpresa Batzordeari eta GUFEn ordezkariak duten zentral sindikalei, bai halaber GUFEn iragarki-oholean eta web orrian argitara dadila agintzea.

Nolanahi ere, zeuk ebatziko duzu egokiena.

Bilbo, 2020ko urriaren 9a

Legelari Aholkularia

Sin.: Fidel Martínez Ruiz

GUFEn Gobernu Batzordeko Presidente jaunaren EBAZPENA, 2020ko urriaren 9koa.

Aurreko proposamena ikusita, osorik onartzen da. Aurrekoa bete bedi.

Sin.: Sergio Murillo Corzo